

2018_{KO}

jardueren memoria



ASOCIACION A FAVOR DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD
INTELECTUAL DE ALAVA

ADIMEN-EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO
ARABAKO ELKARTEA

www.apdema.org

Aurkibidea

01 Elkarte

3. Misioa
3. Ikuspegia
4. Balioak
4. Batzar Nagusia
5. Zuzendaritza Batzordea
5. Bazkide mugimendua
6. Ekonomia
7. 2018. urtea zenbakitan
8. 2018ko jarduera nagusiak

02 Zerbitzu asoziatiboak

9. Familiei laguntzeko zerbitzua
10. Prestakuntza eta dibulgazioa
10. APDEMAren batzordeak
12. Komunikazioa

03 Etxebizitza zerbitzuak

13. Baliabideak
13. Talde-etxeak
14. Egonaldi laburrak
14. Atsedeen programa
15. AVI programa

04 Aisia eta gizarte parte-hartze zerbitzuak

18. Aisia zentroak eta programak
18. Oporraldi programa
18. Bidaia programa
19. Kirol programa
19. Boluntarioak
19. Autokudeatzaileen programa
19. Irakurketa errazeko klubak

05 Arreta goiztiarreko zerbitzua

21. Arreta zuzena
23. Familientzako laguntza
23. Koordinazioa
23. Udal haur eskoletako eta haurreskoletako aholkularitza
23. Gizarte prestakuntza eta parte-hartzea

Aurkezpena

Familia maite agurgarriak:

lazko jardueren memorian, zuen aurreko nire lehen aurkezpenean, zuek eta gure gizarte lana posible egiten duten kolektibo eta erakundeak agurtzeko aukera eduki nuen. Bi urte egin ditut elkarteko presidente, eta harremanetan jarri naiz zuekin, berriz ere, zuzendaritza batzordeari, zuzendaritzari eta elkarteko langileei eskainitako laguntza eta erakutsitako kontsiderazioa eskertzeko.

Ez naiz ditugun erronken zerrenda egiten hasiko, ongi baino hobeto ezagutzen baititugu guztiok: bizileku-baliabideetarako itxaron-zerrendak ezabatzea, arreta goiztiarri lehentasuna ematea, eta bizimodu independentearen eta zerbitzu asoziatiboaren aldeko, zein etxebizitza, aisia eta gizarte parte-hartze programak garatzea. Lerro labur hauen bitartez, inplikazio handiagoa eskatu nahi dizuegu elkarteak planteatzen dizkizuen jardueri dagokienez, gure seme-alaben bizimodua hobetzea baitute helburu.

Gure aldetik, erakundearen aurrean zuen proposamenak babesten jarraituko dugu, nahiz eta horrek desgaste handia eragin, gure arazoei konponbidea emateko duten disposizio eskasagatik.

Amaitzeko, ez dut aukera hau galdu nahi herritarren kezka diren inguruko oraintsuko inkesta batzuetan gizarte laguntzen inguruko kezkek %3-4 eta zahartzearen gaineakoak %1-2 baino ez direla jakinarazteko. Horrek esan nahi du gu mugitu ezean tamalez ez dela inor mugituko edo gutxi batzuk baino ez direla mugituko eduki nahi ditugun zerbitzuak erreklamatzeko.

Zuen zerbitzura nagoela adieraziz, adeitasunez

Juan Maria Rodriguez Ortiz de Zarate
Apdemako Presidentea

Zuzendaritza batzordea

Presidentea:

Juan Rodriguez Ortiz De Zarate jauna

Presidenteordea:

Begoña Ortiz de Zarate Ortiz de Pinedo andrea

Idazkaria:

Aitor Olabe Beobide jauna

Diruzaina:

José Zurita Laguna jauna

Kideak:

Sara Moraza Argote andrea

María Carmen Loreto Carranza Hernaez andrea

Alain Callejo Matia jauna

M. Victoria García Cordero andrea

Luis M^a Fernández Ortíz de Murua jauna

Blanca Sáenz de Urturi Sáenz de Urturi andrea

Mercedes García López andrea

Emilio Gallego Gallego jauna

Organigrama

Batzar Nagusia Zuzendaritza Batzordea Zuzendaritza



Elkartea

APDEMA, 1962. urtetik ari gara lanean, adimen urritasuna duten Arabako pertsonen eta euren familien bizi-kalitatea hobetzeko, euren autodeterminazioa eta gizarte-inklusioa lortzeko. Irabazi asmorik gabeko elkartea da APDEMA, bai eta erabilera publikokoa ere, 1971tik. Parte-hartzearen eta elkarbizitzaren aldeko pertsonok osatzen dute APDEMA, gizarte arretarekin, prestakuntzarekin eta sentsibilizazioarekin konprometituta dauden pertsonak, alegia. Bazkide numerario eta kolaboratzaile artean banatuta daude elkartera atxikitako 1.500etik gora familiak.



Sorreratik, 1962tik, erreferente da APDEMA adimen urritasuna duten pertsonen eskubideen defentsan eta gizarte-inklusioan. Jasotako aitortzen artean, ondorengo hauek nabarmendu behar dira: Subnormalen Aldeko Elkarteek Espainiako Federazioa (FEAPS) sortzen bazkide gisa parte hatu izana, egun Inklusio Betea dena, 1991n Eusko Jaurlaritzaren SUSTATU saria jaso izana, Euskadiko Gizarte Zerbitzuak sustatzen dituen erakunde gisa, eta 1994ko Arabako Domina, Arabako Foru Aldundiarena, gure lan humanitario eta sozialagatik.

Misioa

Adimen ezintasuna duten pertsonen eta euren familien bizi kalitatea hobetzea.

Ikuspegia

Guk nahi dugun etorkizuna ingurune osasungarri, irisgarri eta bateragarriak eraikitzean datza, autodeterminaziotik eta adimen urritasuna duten pertsonak barne hartuta.



Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko elkarte bat gara. APDEMA 1962. urtean sortu zuten Arabako gurasoek. Gure misioa da adimen urritasuna duten pertsonen eta euren familien bizi-kalitatea hobetzea.

Honako hauek dira gure elkartearen balio nagusiak: justizia, kalitatea, goxotasuna, unibertsaltasuna eta parte-hartzea. APDEMAk 2 bazkide mota ditu: familiak eta kolaboratzaileak. 2018an, 700tik gora familia eta ia 500 kolaboratzaile ditu elkarteak.

Horretarako:

Elkartea buru da ezintasunen bat duten Arabako pertsonen beharretarako konponbideetan, ondorengo hauekin:

- Titulartasun (erantzukizun) publikoko Kudeaketa Eredu Misto batekin: gestio pribatu kontzertatukoa eta plangintza publikoaren mendekoa. Elkarateak zerbitzuak erabili eta ematen ditu aldi berean.
- Gizarte ordezkaritza handi eta zabal batekin.
- Jarduera-irizpide berritzaileak erabilia, baliaezintasunari dagokionez.
- Familien lidergo soziala eta elkarteen parte-hartze demokratikoa sustatuta.
- Bizi kalitatearekin konprometitutako elkarre kualifikatu gisa, gaitasun teknikoa eta kalitatea legitimazio-iturrien osagarri direlako, ezintasuna duten pertsonen eta horien familien beharrei konponbideak emateko gaitasuna biderkatzen dutelako eta eraginkortasuna nabarmen hobetzen dutelako.

Balioak

Elkarateak bere egin ditu munduaren ikuspegi partekatuarekin, ezintasun intelektuala duten pertsonen eta horien familienekin, eta horiek euren inguruarekin duten erlazioarekin bat datozen balioak.

Ondorengo hauek, alegia:

Elkartasuna	kualifikazioa eta berrikuntza
Justizia	Eraginkortasuna
Kalitatea	Independentzia
Gardentasuna	Kooperazioa
Inguruarekiko elkar harremana	Kide izateko sentimendua
Bezeroarekiko orientazioa	Parte-hartzea

Batzar nagusia

2018ko maiatzaren 24an izan zen Elkaratearen Ohiko Batzar Nagusia, eta boto eskubidea zuten berrogeita bederatzi bazkide bildu ziren bertara.

Bertan, gure intereseko gai nagusiak jorratu ziren, 2017ko ekitaldiko jardueren memoria eta urteko datuak, 2018ko proiektuak eta aurrekontu ekonomikoa edo Zuzendaritza Batzordearen berritze partziala, besteak beste, gure estatutueta adierazi bezala.

Aurreko Batzarreko akta irakurri eta aho batez onartu ondoren, Aitor Olabek, Elkarateko idazkariak, 2017ko jardueren memoria aurkeztu zuen, eta zehatz-mehatz azaldu zien Elkarateko zuzendari-gerentea den Aña Peñacobak bertara hurbildutako guztiei.

Ondoren, APDEMAko bazkide numerario eta kolaboratzaileen mugimenduari heldu zitzaion. 2017ko ekitaldiaren amaieran, 760 ziren bazkide numerarioak; bazkide kolaboratzaileak, berriz, 474.

2017ko kontuak jorratu ziren, ondoren, Batzarrean. Elkarateko diruzain Carlos Errastik diru-sarrera eta gastuen partida nagusiak azaldu zituen, balantzearekin eta emaitza-kontuarekin eta zegozkien saldoekin batera. 2017ko kontuen defizita aurreko urtekoa baino handiagoa izan zen. Nolanahi ere, 2017ko kontuak aho batez onartu ziren Batzarrean.

Ezarritako gai-zerrendari jarraituz, Zuzendaritza Batzordearen berritze partzialari heldu zitzaion ondoren. Edurne Abasolo andrea, Carlos Errasti jaunaren, Cristina Leal andrea eta María Dolores Yrazu andrea kargu-uztearen berri eman ondoren, hautagaiak aurkeztu ziren: Blanca Saenz de Urturi Saenz de Urturi andrea, Mercedes Garcia Lopez andrea, Emilio Gallego Gallego jauna, Luis M. Fernandez Ortiz De Murua jauna (Berrautaketa) eta Aitor Olabe Beobide jauna (Berrautaketa), eta ondorengo karguen proposamena ere egin zen: Jose Zurita jauna, diruzain, eta Aitor Olabe, idazkari. Aho batez onartu

zen Batzarrean Zuzendaritza Batzordeak horren berritzeari eta karguak izendatzeari buruz egindako proposamena; beraz, hautagaiak hautatu eta izendatu ziren.

Ondoren, 2018rako proiektuei heldu zieten. Presidenteak horien inguruko azalpen xehea eman zien bertara joandako bazkideei. Hala, enplegurako trebetasunen, sexualitatearen eta Gehiegikerien Prebentzioaren inguruko prestakuntza jasotzeko programa berriak azpimarratu ziren. “Zahartze” egitaraua, “Komunitateko ekintzak” egitaraua eta beste batzuk sortu izana, eta Tratu txarrak prebenitzeko eta horien aurrean nola jardun jakiteko planarekin bat egin izana, adibidez. Berriz ere, aho batez onartu ziren aurkeztutako programak.

Amaitzeko, 2018ko aurrekontu ekonomikoa jorratu zen, eta diruzainari egokitu zitzaion gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspena egitea. Hark azaldu zuenez, %5 inguru hazi da aurrekontua, 2017koaren aldean, Etxebizitza Zerbitzuko taldeko bost etxetan arreta zuzeneko orduan ugarritu egin izanaren eta Arreta Goiztiarreko Zerbitzuak eskaintzen dituen zerbitzuak 6 urtera arte luzatu izanaren ondorioz.

Bazkideen urteko kuotari dagokionez, diruzainak esan zuen bazkide-kopuruak behera egin izanak kuota handitzea ekarriko duela. Kuota handitzea proposatu zen, 75 €-tik 80 €-ra pasatzea, 2018rako. Kontrako boto batekin, aho batez onartu zen kuota igotzea.

Zuzendaritza batzordea

Bazkideen Batzar Nagusiak, APDEMAren erabaki organo gorenak, Zuzendaritza Batzordearen esku uzten du gure elkarteko eguneroko gai nagusien kudeaketa. 2018ko ekitaldian, ohiko 11 bilera egin zituzten kideek.

Bazkide mugimendua

2018ko hasieran, 760 bazkide numerario eta 474 kolaboratzaile zeuden erregistratuta. Urtean zehar 21 alta eta 24 baja izan dira bazkide numerarioen artean, bai eta 3 alta eta 10 baja ere kolaboratzaileei dagokienez. Beraz, 2018ko abenduaren 31n, 1224 familia zituen bazkide APDEMAk. Horietatik, 757 bazkide numerarioak dira eta 467k beren laguntza eskuzabal eta balio-baliotsua ematen jarraitzen dute laguntzaile gisa.



Ekonomia

2018an, lau lankidetzak hitzarmen sinatu ditu APDEMAK Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin. Arreta Goiztiarreko Zerbitzuaren, Aisia eta Gizarte Parte-hartze Programaren, eta Etxebizitza Zerbitzuaren hitzarmenak biurtekoak izan dira 2018 eta 2019 ekitaldietarako. Elkartearen Jardueren inguruko Lankidetzak Hitzarmena, beste atal bati dagokiona, 2018rako sinatu da.

Txosten hau amaitzeko unean GOFeren likidazioa falta bada ere, behin-behineko emaitza ekonomikoek superabita erakusten dute Etxebizitza Zerbitzuen eta Aisia eta Gizarte parte-hartze hitzarmenei dagokinez, eta defizita, berriz, Arreta Goiztiarreko hitzarmenean.

Aisia eta Gizarte parte-hartze, eta Etxebizitzen inguruko superabita GOFeri itzuliko zaio, baina espero dugu Arreta Goiztiarreko defizita Foru Erakundeak estaltzea.

Kirol programarako, Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren, Gasteizko Udalaren, Laudioko Udalaren eta Kirolaraba Fundazioaren laguntza ekonomikoa izan dugu.

2018an, Enplegurako Trebetasunen inguruko "Impulsa-T" programa garatu ahal izan dugu Vital Fundazioaren laguntza ekonomikoari esker, bai eta "Zurekin, zahartzea errazagoa da" programa ere, La Caixa Gizarte Ekintzarekin sinatutako hitzarmenari esker.

Garrantzitsua da adieraztea 2018an La Palomako egoitzako bulegoak egokitzeko lanak egin direla, eta ONCE Fundazioaren eta Vital Fundazioaren laguntza ekonomikoaren bitartez finantzatu direla.

Kontabilitatearen gardentasunari eta zuzentasunari dagokinez, esan behar da 2017ko ekitaldiaren kanpo auditoria orokor bat enkargatu zela, eta BETAnek egin zuela; txosten hori Ohiko Batzarrean onartu zen. Dagokion bezala, Foru Erakundeak berak zehatz-mehatz ikuskatu du gure kontabilitatea.

Eusko Jaurlaritzari ere aurkeztu zaizkio kontuak, "erabilera

Resumen de ingresos y gastos 2018. Datos provisionales.

publikoko" eta "gizarte intereseko" elkartea baita gurea. Vital Fundaziotik jasotako laguntza ere azpimarratu behar dugu, lokalak utzi baitizkigu, bai eta Gasteizko, Laudioko, Legutioko eta Amurrioko udalen lankidetzak ere, azken horrek udalari horretako etxearekin laguntzen digu, adibidez. Gure RSE programarekin bat egin duten enpresa eta erakundeei eta ekonomikoki (baita anonimotasunetik ere) lagundu diguten guztiei ere, eskerrik asko.

2018ko diru-sarreraren eta gastuen laburpena behin-behineko datuak

GASTUAK

Gofe-rekin hitzartutako zerbitzuak

Arreta goiztiarra	778.866,10
Etxebizitzak	4.352.527,27
Aisia	382.127,00

Zerbitzu komunak eta asoziatiboak

Proiektuak	29.074,91
Kanpoko zerbitzuak	66.894,01
Langileak	237.441,63
Programak eta Jarduerak	66.677,86
Hitzarmenetik kanpoko programak	83.535,90

Zerbitzu komunak eta asoziatiboak
guztizko gastuak
483.624,31

Gastuak guztira
5.997.144,68

DIRU-SARRERAK

Gofe-rekin hitzartutako zerbitzuak

Arreta goiztiarra	778.866,10
Etxebizitzak	4.352.527,27
Aisia	382.127,00

Zerbitzu komunak eta asoziatiboak


Proiektuak	29.074,91
Sozialak	107.161,38
GOFeren hitzarmena eta diru-laguntzak	228.393,68
Programak eta Jarduerak	35.387,32
Hitzarmenetik kanpoko programak	96.028,83

Zerbitzu komunak eta asoziatiboak
guztizko diru-sarrerak
496.046,12

Diru-sarrerak guztira
6.009.566,49

2018. urtea zenbakitan


1.580



ERABILTZAILEAK

- Asoziatiboak **757**
- Etxebizitzak **165**
- Aisia **284**
- Arreta goiztiarra **374**

198



PROFESIONALAK

- Asoziatiboak **6**
- Etxebizitzak **160**
- Aisia **11**
- Arreta goiztiarra **21**

ERABILTZAILEAK

ASOZIATIBOAK	ETXEBIZITZA ZERBITZU OROKORRAK 165	AISIA 284	AUTOKUDEATZA-LEAK 73	Kirola 154	ARRETA GOIZTIARRA 374
Bazkide diren familiak 757	Etxeak 94	Gasteiz 204	Gasteiz 62	Gasteiz 140	
Familiekin elkarrizketak 228	AVI 43	Amurrio 25	Amurrio 11	Laudio 14	
	Atsedeen etxea 28	Laudio 29			
		Arabar Errioxa 26			

2018ko jarduera nagusiak

Familia taldeak sortu dira Gasteizen eta Aiaraldean.

Gizartean eta lan munduan gizarterako oinarrizko gaitasunak eta baliabide pertsonalak garatzen dituen "IMPULSA-T" proiektua ezarri da.

Zahartze osasungarriaren aldeko "Zurekin, zahartzea errazagoa da" prebentzio eta arreta programa bat sortu du APDEMAK.

Sexualitatearen eta Gehiegikerien Prebentzioaren inguruko prestakuntza adimen urritasuna duten pertsonentzat.

Etxebizitza zerbitzua erabiltzen duten pertsonen banakako planak egin dira.

Tratu txarrak prebenitzeko eta horien aurrean nola jardun jakiteko planarekin bat egin da adimen urritasuna duten pertsonen arretarako zentroetan.

"Komunitateko ekintzak" aisia programa sortu da.

Autokudeatzaileen Programaren 20. urteurrena.

Arreta Goiztiarra kontsolidatu eta sei urtera luzatu da eta areto berriak egokitu dira.



Zerbitzu asoziatiboak

Familiei laguntzea, informazioa ematea, entzutea eta haien ondoan egotea. Horixe da APDEMAren zerbitzu asoziatiboen helburu nagusia. Horregatik, bertako profesionalen lan handi bat gure erabiltzaileen familiei laguntzea da, ezinbestekoak baitira adimen edo garapen urritasuna duten pertsonen bizitzan. Ez urritasuna duten pertsonak zaintzeko bakarrik, baita horien autonomia eta bizi-kalitatea sustatzeko erreferente pertsonal gisa ere.

Hala, batetik, APDEMAren zerbitzu asoziatiboek taldeak gure erabiltzaileen familien informazio eta laguntza beharrei erantzuten die.

Familiei laguntzeko zerbitzua

Adimen urritasuna duen pertsonaren familiaren dimentsioa du ardatz zerbitzu honek, elkarrizketa pertsonalaren bidez batez ere, eta eguneroko gai jakinetarako konponbideak aurkitzeko kudeaketak ere egiten ditu. Guztira, 228 pertsona artatu dira 2018an, 148 emakume eta 70 gizon. Banakako arretak ondorengo hau suposatzen du:

- Adimen urritasunarekin lotutako gaien inguruko informazioa, **orientazioa eta kudeaketa**.
- Elkartera informazio edo aholku eske jo duten pertsoneri hasierako **ongietorria** ematea. 2018an 21 bazkide berri egin ditugu.
- **Prestazio ekonomikoak**. Urtero bezala, prestazio ekonomikoen eta familia babesteko neurrien liburuxka bat egin da, gida modukoa, adimen ezintasuna duten pertsonentzat.



...

Familia oso inportanteak dira adimen urritasuna duten pertsonentzat. Zaindu, lagundu eta autonomia eta bizi-kalitatea sustatzen dute. Gure elkarteak euren eguneko lanean laguntzen die familiei. Prestakuntza lanak egin eta ezagutzera ematen dute elkarteak.

APDEMA, Batzorde izeneko lan-taldeak daude. Hauek dira APDEMAren batzorde nagusiak: Enplegu Batzordea, Okupazio Zentroen Batzordea, Erabiltzaileen Batzordea eta Familien Batzordea.

- Baliabide instituzionalen eta horiek eskuratzeko moduen inguruko **informazioa**.
- **Erabiltzaileen eta horien familien inguruko datuak** jaso eta eguneratzea. Bazkideen egoera pertsonal eta familiarrean izandako aldaketak eta familiei arreta emateko eta talde etxeetan bizi diren pertsonen jarraipena egiteko eguneroko erregistroak jasotzen dira.
- **Egoera espezifikoetan esku hartzea**, bizi-kalitatearen hobekuntzan, familia arteko gatazketan eta abar.
- **Trantsizio-uneetarako laguntza**, arreta goiztiarreko zerbitzutik hezkuntza sistemara pasatzeko, hortik lan eta lanbide mundura, erretirora, edo etxebizitza espezifikoetara.
- Harremana izan dugu erakundeen baliabideetan artatu gabeko pertsona batzuekin, eta harremanetan jarri gara eurekin, beren egoera pertsonalari buruz jakiteko.

Prestakuntza eta dibulgazioa

Hezkuntza arloko dibulgazioa

2018an, elkarriketak egin dira Armentia Ikastolako, Marianistetako, IES Mendebaldeko, Niño Jesus ikastetxeko, Ikasbidea Ikastola Ikastetxeko, San Prudencio ikastetxeko, IES Lakuako, Koldo Mitxelena institutuko eta IES Los Herreneko 11 ikasle-talderekin.

Udalaren GASTEIZTXO programaren bitartez, APDEMA eta horren funtzionamendua ezagutzera ematen dira, eta sentsibilizazioa eta bisibilitatea sortzen dira gizartean.

APDEMAren batzordeak

Enplegu Batzordea

APDEMAren erabiltzaile eta INDESAko eta Gureakeko langile diren lau pertsonak, APDEMAren erabiltzaile eta INDESAko langile diren pertsonen lau senidek eta Elkarteko bi profesionalek osatzen dute Enplegu Batzordea.

Batzordearen helburua da enplegurako zentro berezien eta bertako langileen egunerokoan garrantzitsua denaren jakinaren gainean egotea. 2018an hamaika pertsona artatu dira, lau gizon eta zazpi emakume. Gureakeko langile bat batu izana da aurtengo nobedadea.

Okupazio Zentroetako Batzordea

Horren helburua da zentro horietan gertatzen denaren jakinaren gainean egotea. APDEMAren erabiltzaile diren pertsonen zazpi amak edo senidek osatzen dute Okupazio Zentroetako Batzordea. 2018an zazpi pertsona artatu dira, emakumeak guztiak.

Erabiltzaileen Batzordea (Mundua eraikitzen dugu)

2016an sortu zen Batzordea, FEVAS Plena Inclusión Euskadiren “Mundua eraikitzen dugu” proiektuan sartuta dago, eta adimen urritasuna duten pertsonen elkartean protagonismo handiagoa ematea du helburu. 2018an bost bilera egin dira, horietako bat APDEMAko Zuzendaritza Batzordeko ordezkariekin.

FEVAS Plena Inclusión Euskadiko batzordeak

2018an, FEVAS Plena Inclusión Euskadiko Familia Batzordea bi aldiz elkartu da Deustuko Unibertsitatearekin, erakundeentzako prestakuntza antolatzeke eta ikerketa lan batean kolaboratzeko.

Hezkuntzaren jarraipena

2018an, harremanetan egon gara hezkuntza ikastetxeekin eta Berritzeguneko gizarte langileekin.

Etorkizunerako prestakuntza

Etorkizunak asko kezkatzen ditu gure gurasoak. 2018an, gurasoen zein seme-alaben testamentuari, tutoreak etorkizunean edukiko duen funtzioari, bizileku-aukerei, pertsonarentzako etxeko laguntzei edo legezko gaitasunaren aldaketari eta abarri buruzko aholkularitza eta informazioa eman zaie familiei.

Erabateko Kalitatearen Ebaluazio Sistema

2018an, autoebaluazioren eta Hobekuntza Plana aurkeztu ondoren, Konpromiso etapa egiaztatu dugu eta lanean jarraitu behar dugu plan horretan, bertan jasotako hobekuntza guztiak betetzeko.

Hiruk eragiten diote, zuzenean, familien arretarako zerbitzuari: familien asebetetzearen ebaluazioak, kolektiboaren ahalduntzea eta bisualizazioak eta familia-taldean eraketak

Familia taldeak

2017ko martxoan, sondeo bat egin zen, bazkide ziren familiek familia-taldeak sortzeko interesik zuten jakiteko. Erantzuna positiboa izan zen, eta 2018an lehen bilerak egin ginen.

Urtean zehar 5 aldiz elkartzeko gara, bai Gasteizko taldean, bai eta Aiaraldekoan ere. Lehen bilerak taldeak sortzeko izan zen, eta gainerako lauetan etxebizitza modalitateak, gaitasunaren aldaketa eta tutela, eta adimen urritasuna duen pertsonaren etorkizun finantzarioaren prestaketa landu ditugu, eta USOA Tutoretza Fundazioko pertsonak ondoan izan genituen beste batean, euren lana zertan datzan eta nola egiten duten azaldu ziguten.

Berrogeita hiru lagunek hartu dute parte ekintza horretan urtean zehar: hamar gizon eta hamalau emakume Gasteizen, eta lau gizon eta hamabost emakume Aiaraldean.

Bestelakoak

Arreta goiztiarreko Etxebizitza eta Aisia eta gizarte parte-hartze zerbitzuen ohiko eta beharreko esku-hartzeaz gainera, beste zerbitzu eta laguntza garrantzitsu batzuk ere eskaini dituzte APDEMAren zerbitzu asoziatiboek 2018an, ondorengo hauek, besteak beste:

• Kontuak egiteko laguntza.

Elkarteak familia askori lagundu die kontuak egiten eta, ondoren, auzitegian aurkezten; izan ere, pertsona horietako asko adinekoak dira eta zailtasunak dituzte horrelakoak egiteko.

• Bizikidetzak eta Aniztasun Elkargunetik sortutako eta Gasteizko Udalak Urtxintza Eskolarekin batera koordinatutako "Zehaztasun terminologikoaren" inguruko lan-taldean parte hartu dugu.

Lau bilerak egin dira; terminologiari buruzko gogoeta eta lana egin da, eta gida bat ateratu dugu.

• IMPULSA-T programa.

Vital Fundazioak emandako diru-laguntza bati esker, lana bilatzeko trebetasun soziolaboralei buruzko IMPULSA-T programa jarri ahal izan dugu abian 2018an, APDEMAko kideentzat.


Langabezian egonda eta enplegurako trebetasunetan prestakuntza behar zuten adimen urritasuna duten sei pertsonak hartu dute parte programan.

• Zahartze osasungarriko APDEMAren prebentzio eta arreta plana.

Adimen urritasuna duten pertsonen eta euren familien zahartze osasungarriko prebentzio eta arreta plana La Caixa Gizarte Ekintzaren diru-laguntza bati esker jarri ahal izan da abian.

Plan horrek La Caixa Gizarte Ekintzaren laguntza ekonomikoa du eta modu integratuean landu du adimen urritasuna duten pertsonen zahartzea.

2018an burututako ekintzen artean, ondorengo hauek nabarmendu behar dira: familia eta profesionalentzako prestakuntza jardunaldiak, zahartze-sintomak antzemateko protokoloa abian jarri izana, eguneko arretarako topaleku bat sortu izana -45 urtetik gorako 10 pertsonak hartzen dute parte bertan- edo komunitatearen eguneko jarduerak batean sartzeko bizi-ibilbide pertsonala egin izana nabarmendu behar dira.



Komunikazioa

Zerbitzu horren helburua da Elkarte sentsibilizatzea eta sustatzea iritzi publikoan leku bat eduki dezan, eta APDEMA Araban adimen urritasuna duten pertsonen eta euren familien alde lan egiten duen elkarte gisa kokatzea.

Zerbitzu horrek egiten dituen jardueren barruan, Ecos informazio-buletina azpimarratu behar da. Horren bertsio digitalean, adimen urritasuna duten pertsonen, euren senideek, teknikariek, boluntarioek eta abarrek elkartean egunerokoa islatzen dute. Lau hilean behin, inprimatutako bertsioa argitaratzen da, gure eguneroko gai garrantzitsuenekin.

Gizarte medioei dagokionez, 2018an 35.803 bisita izan ditu APDEMAren web orriak. FaceBookeko orria, berriz, 1.107 jarraitzaile iritsi da. Twitterreko kontuari dagokionez, 709 jarraitzaile lortu ditu.

Urtero bezala, Urritasunaren Nazioarteko Eguna dela-eta, dibulgazio kanpaina bat egin du APDEMAk, Vital Fundazioaren, La Caixa Gizarte Ekintzaren eta Arabako Foru Aldundiaren lankidetzarekin. “Zurekin, zahartzea errazagoa da” izan da kanpainaren leloa, eta APDEMAk adimen urritasuna duten eta zahartze prozesuan dauden 45 urtetik gorako pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko garatutako programa ezagutzera emate izan du helburu.



Zerbitzu asoziatiboaren egitura



Etxebizitza zerbitzuak

APDEMAk Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin duen hitzarmenaren bitartez garatzen eta kudeatzen du etxebizitza zerbitzua. Hiru arlotan banatzen da horren jarduera: Taldeentzako Etxeak, Bizimodu Independentearen aldeko Programa eta Atsedeen Programa. Zerbitzuaren helburu nagusia da adimen urritasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea, euren eguneroko bizimoduan etxeari eta dagokion komunitate-inguruneari dagokienez. Horretarako, erabiltzailearen zoriona, etxean edo komunitate-ingurunean ahalik eta autonomia handiena garatu edota edukitzea, eta erabiltzailearen bizimodua normalizatzea bilatzen dugu, horren nahi pertsonalen eta komunitate-ingurunearen arabera.

Lanerako filosofia horren oinarria pertsonari begirako planifikazioa da, arreta bizi-kalitatean eta laguntzetan ezarrita. Hori dela-eta, banakakoa da gure lana, artatzen dugun pertsona bakoitzari erantzun pertsonalizatua ematen saiatzen gara. Zerbitzuaren jarduera probintzia osoa zabaltzen da. Zehazki, taldeentzako hamaika etxe daude. Atsedeen programak, berriz, pisu bat du Gasteizen, baina probintzia osoko familiak artatzen ditu. AVI programak Gasteizen, Oionen eta Laudion artatzen ditu pertsonak.



Baliabideak

Talde etxeak

Gehienez ere 11 erabiltzaile hartzen dituzte etxe hauek. Etxebizitzak iraunkorrak dira, hau da, babes osoa eskaintzen dute urte osoan. Bertan, banakako laguntza programak eskaintzen dira, dagokion komunitate-ingurunearekin koordinatuta, betiere. APDEMAk 11 talde etxe kudeatzen ditu: 7 Gasteizen, 2 Oionen, 1 Laudion eta 1 Amurrion.

2 Oionen, 1 Laudion eta 1 Amurrion.

Egonaldi laburrak ere eskaintzen ditu APDEMAk, kasu puntualetan. Eta eskola-adinean dauden neska-mutilen familiek atsedeen programaz goza dezakete asteburuan.



...

Etxebizitza zerbitzuak etxea eskaintzen dio etxerik ez duenari, eta modu independentean bizi nahi duten pertsoneri laguntzen die. Komunitateko ekintzetan parte hartzen ere laguntzen du. APDEMAk taldeentzako 7 etxe kudeatzen ditu Gasteizen,

Egonaldi laburrak

Talde etxeetako aldi baterako egonaldiak dira, eta urteko hainbat sasoi tan erabiltzen dituzte adimen urritasuna duten pertsonak. Senideen behar berezietarako edo pertsonak beraiek une jakin batean eduki ditzaketen premiazko egoera puntaletarako dira.

2018an, 13 lagunek erabili dute baliabide hori.

Zerbitzua	Egonaldiak	Erabiltzaile kop.	egunak
Urbasa	6	3	275
Zapardiel	4	3	82
Laudio	10	7	116
Guztira	20	13	473



Atsedeen programa

Familiei laguntzeko programa bat da. Eskola adinean dauden eta adimen urritasuna duten haurren senideei asteburuan eta oporretan atsedeen ematea da helburua.

Atsedeen etxea Gasteizen dago eta urteko asteburu guztietan funtzionatzen du programak, ostiral arratsaldetik astelehen goizera. Gainera, bost eguneko egonaldia eskaintzen zaie familiei oporretan (Aste Santuan, San Prudentzio jaietan edo udan). 2018an, 9-20 urteko 28 neska-mutil (7 neska eta 21 mutil) artatu dira.



AVI PROGRAMA (Bizimodu Independentearen aldekoa)

Adimen ezintasuna edukita, modu independentean bizitzea erabakitzen duten edo erabaki duten eta gauza batzuetan euren kabuz konpon ezin ditzaketen beharrak edo gabeziak dituztenen pertsoneri laguntza, orientazioa eta babesa eskaintzean datza programa. Euren etxean, ostatutan edo gizarte zerbitzuen saretik kanpoko egoitzetan, bakarrik bizi diren eta etxean erakundeen edo familiaren laguntzarik ez duten eta adimen urritasuna duten 43 pertsona artatzen ditu zerbitzuak. 2018an, hainbat ekintza egin dira, Gabonetako askaria, Andre Maria Zuriaren jaietako geratzeak, udako oporrak, bidaiak eta abar. Horrelako ekimenak ezinbestekoak dira harremanak estutzeko eta euren arteko loturak indartzeko.



Zerbitzuaren egitura

Talde etxeak

Batzarrak
Mariturri
Oion
Laudio
Zapardiel
Saracibar

Foronda
Urbasa
Easo
Amurrio
Las Losas

Programak

AVI
Atsedeen programa

Talde etxeak



Pertsonak: **94**
Profesionalak: **71**

Egonaldi laburrak



Pertsonak: **13**
(20 egonaldi labor)
Profesionalak: **9**

AVI programai



Pertsonak: **43**
Profesionalak: **9**

Atsedeen programa



Pertsonak: **28**
Profesionalak: **5**

Etxebizitzak: Jarduera Plana 2018-2019

2018an egina

Artatutako pertsonen banakako laguntza-planak.

Tratu txarren aurkako Prebentzio Planaren (2018-2019)
%65 baino gehiago ezarri da.

Zahartzearen inguruko lehen ekintza plana bete da.



2019rako ekintzak

Esku-hartze bateratuko planen kontsolidatzea: pertsona ardatz duen orientazio estrategika metodologikoa.

Profil pertsonalak abian jartzea: pertsona ardatz duen orientazio handiagoa.

Tratu txarren aurkako Prebentzio Planaren kontsolidatzea.

Talde etxeetan arreta zuzeneko ordutegia handitzea.

Aisia eta gizarte parte-hartze zerbitzuak

APDEMAren Aisia eta Gizarte Parte-hartze Zerbitzuak aisia erabilgarri eta onuragarria sustatzen du adimen urritasuna duten pertsonentzat, hurbileko kultur, gizarte, kirol eta aisia eskaintzaz gozatzeko aukerak eta inguruneak sortuta.

Zerbitzuak gustu guztietarako aisia aukerak eskaintzen ditu Araban, ekintza kulturalak, ludikoak eta kirol ekintzak barne.

Aisia zentroetan, animazio soziokulturaleko tailerrak eskaintzen dituzte, astegunetan batik bat, eta kanpoan, parte hartu eta gizarte ingurunean eskaintzen dituen aukerez gozaten da. Aisia zentro eta programek aukera zabala eskaintzen dute; zentroi dagokienez, Gasteiz, Amurrio, Laudio eta Arabako Errioxan, eta programei dagokienez, berriz, kirola, udako oporrak eta bidaiak, aisia komunitatean, zahartzea, irakurketa errazeko klubak, boluntariatza eta autokudeatzaileak.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin egindako hitzarmen baten bidez finantzatzen da zerbitzua.



Aisia Zerbitzuak aisia erabilgarri eta onuragarriaren aldeko apustua egiten du. Hiriko kultur, kirol eta aisia eskaintzaz gozatzeko dugu. Aisia zentro eta programetan, denbora libre pasatzeko lagunak eta taldeak egiten dira.

Oporretan, bidaiak antolatzen dira kostara, edo bisita kulturalak hiri eta herrietara. Aisian kirola egitera ere animatzen dugu.

Aisia zentroak eta programak

Eskaintza, topaketarako, erabakiak hartzeko, parte hartzeko eta harreman pertsonalak zein talde artekoak sustatzeko lekuak, honela banatuta daude: animazio soziokulturaleko tailerrak astelehenetik ostiralera, eta asteburuetakoa jarduerak, jardueren agenda espezifikoekin.

2018an, Gasteizko zentroan 8 tailer egin dira, eta 12 lagunek hartu dute parte, batez beste, tailer bakoitzean. Asteburuetan, honela banatzen da jarduerak: komunitateko ekintzen eskaintza euren agendak autokudeatzen dituen gazte talde batekin eta helduen talde batekin, eta ekintza orokorren eskaintza Aisia Zentroan, adin zehatzik gabeko talde batentzat. Aurten 204 bazkidek, 29 boluntariok eta 5 jarduera teknikarik hartu dute parte.

Laudioko eta Amurrioko Gazte Alaiak zentroek asteburuan zentratzen dute euren jarduerak, eta %65 eta %70eko batez besteko asistentzia dute, hurrenez hurren. Laudion, 29 bazkidek, 9 boluntariok, tailerretako teknikari batek eta aisia espezialista batek hartu dute parte.

Eta Amurrian, 25 bazkidek, 33 boluntariok, tailerretako teknikari batek eta aisia espezialista batek.

Arabar Errioxako programak jarduera puntualak egiten ditu, asteburuetan gehien bat. Aurten 26 bazkidek egin dituzte ekintzak, 6 boluntariok eta aisia espezialista batek lagunduta.



Oporraldi programa

Uztailean eta abuztuan, udako egonaldi eta zirkuitu programa egiten da. 2018an oporraldi programan egindako 17 jarduerak edota txandetan, 202 erabiltzailek hartu dute parte, 50 begiralek lagunduta.

Hautatutako lekuak: EAEn, Segura, Lekeitio, Hondarribia eta Zarautz; eta, bestalde, Gijoneko hondartza, Suances, Noja, Laredo eta Lanzarote.

2018an, aurreko udetan bezala jarraitu du Gasteizko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren kolaborazioak, eta adimen urritasuna duten haurren parte-hartzea babestu dute Gasteizko udal udalekuekin eta probintzia mailako udaleku eta gazteentzako bidaietan.

Bidaia programa

Aurten ere, oporraldiaz gozatzeko sasoa izan da Pazko astea. Apirilaren 2tik 8rako astean, adimen urritasuna duten eta APDEMAren aisia zentro eta programen erabiltzaile diren 55 pertsonak honako leku hauetara bidaiatu zuten, 15 begiralerekin: Benidorm, Noja, Comillas, Santander eta Leonera (kulturala).

Kirol programa

APDEMA Kirol Taldeak kirol eskaintza zabala du astero, eta, horrekin gizarte errentagarritasun handia lortzen du.

Aurten, Gasteizko 140 kirolariak 8 kirol modalitatetan hartu dute parte, 17 kirol taldetan banatuta eta 19 entrenatzailek lagunduta. Laudion, 14 kirolariak hartu dute parte, 2 kirol diziplinatan, 4 entrenatzailekin laguntzarekin.

Kirol txapelketetako parte-hartzeari dagokionez, igeriketako eta areto futboleko gure kirolariak 14 aldiz lehiatu dira erkidego mailan, eta behin estatu mailan, 2018an.

Gasteizko JUDIZMENDI Igeriketa Klubaren lankidetzak aurrera jarraitzen du, eta kirol denboraldian, APDEMAko emakumezko igerilari batek eta gizonezko lau igerilari Arabako Igeriketa Federazioaren egutegiko Arabako txapelketetan hartu dute parte.



Boluntarioak

APDEMAko aisia teknikarien laguntzarekin, hainbat boluntario taldek dinamizatzen dituzte aisia zentro eta programetako jarduerak, asteburuetan.

Kalitateko arreta pertsonalizatuaren aldeko apustua egiten da, prestakuntza etengabearen bitartez; izan ere, abian den aisia eskaintzak eta garatu beharreko lanek prestakuntza etengabea urte eustea eskatzen dute.

2018an, zehazki, honela banatu dira APDEMAko 87 boluntarioak: 29 Gasteizen, 42 Aiaraldean, 6 Arabar Errioxan eta 10 kirol txapelketetan eta jarduera puntualak indatzeko.

Autokudeatzaileen programa

Autokudeatzaileen taldeak parte-hartze guneak dira; adimen urritasuna duten pertsonak euren nahiak eta proiektu pertsonalak adierazten eta azaltzen dituzte talde horietan, eta esperientziak partekatzen.

2018an, jarduera konstante eta kontsolidatua mantendu dute 5 taldek: 4k Gasteizen eta 1ek Amurrian; batez besteko asistentzia %94 ingurukoa izan da. Gaur egun, 73 pertsonak osatzen dute autokudeatzaileen taldea, eta 6 pertsona daude itxaron zerrendan.

Nabarmendutako beste ekintza batzuk: irakurketa errazeko klubak, gure kasako oporrak, Done Jakue bideko ostatu emaileak: Lizarra, Naiara eta Grañon, Boluntarioak, APDEMAko Autokudeatzaileen 20. Urteurrena, ekainaren 23an ospatu zena, Gasteizen, Autokudeatzaileen Euskadiko XIV. Topaketa, Gasteizen izan zena, FEVASen irisgarritasun kognitiboko irakurketa errazeko gidaren testatzea, Erabiltzaileen Ecos aldizkaria eta abar.

Irakurketa errazeko klubak

2014-215 ikasturtean, irakurketa errazeko klubak sortu zituen APDEMAk, "jarduera asoziatibo jarrai" modura.

Ikasturtez ikasturte, konstantea izan da irakurzaletasunaren igoera adimen urritasuna duten pertsonen artean.

2018an, adimen urritasuna duten pertsonentzako irakurketa errazeko 3 klub kudeatu ditugu, Iparraldeko eta Pilarreko gizarte Etxetan eta Gasteizko Ignacio Aldekoa Kultur Etxean, eta irakurketa errazeko klub bat, berriz, Amurrian. Gainera, 5 erabiltzailek hartu dute parte Gasteizko Udalaren Klub "Inklusibo"an.



Aisia zentroak eta programak

Gazteiz

Erabiltzaileak: **204**

Profesionalak: **9**

Boluntarioak: **29**

Amurrio

Erabiltzaileak: **25**

Profesionalak: **1**

Boluntarioak: **33**

Laudio

Erabiltzaileak: **29**

Profesionalak: **1**

Boluntarioak: **9**

Arabar erroixa

Erabiltzaileak: **26**

Profesionalak: **1**

Boluntarioak: **6**



Oporrak

Parte-hartzaileak: **202**

Begiraleak: **50**

Txandak edota jarduerak: **17**



Kirola Gasteiz

Kirolariak: **140**

Begiraleak-
Entrenatzaileak: **19**

Jarduera taldeak: **17**

Kirol modalitateak: **8**

Asteko entrenamendu-
orduak: **2/3/5**



Boluntarioak

Zentroak eta programak: **77**

Kirola – laguntza -
txapelketak: **10**



IE klubak

Gasteiz Taldeak: **3**

Parte-hartzaileak: **88**

Dinamizatzaileak: **3**

Amurrio Taldeak: **1**

Parte-hartzaileak: **20**

Dinamizatzaileak: **1**



Bidaiak

Parte-hartzaileak: **55**

Begiraleak: **15**

Bidaiak: **5**

Kirola Laudio

Kirolariak: **14**

Begiraleak-
Entrenatzaileak: **4**

Jarduera taldeak: **2**

Kirol modalitateak: **2**

Asteko entrenamendu-
orduak: **2**

Kirola Txapelketak Erkidegoko-Estatuko

Txapelketak: **15**

Kirolariak: **205**

Begiraleak-
Entrenatzaileak: **21**

Kirol modalitateak: **2**

Autokudeatzaileak

Gasteiz Taldeak: **4** Parte-hartzaileak: **62** Bilerak: **68**

Amurrio Taldeak: **1** Parte-hartzaileak: **11** Bilerak: **17**

Arreta goiztiarreko zerbitzua

Garapen arazoak dituzten edo halakoak eduki ditzaketen 0-6 urteko neska-mutilek eta euren familiek dute lekua Arreta Goiztiarreko Zerbitzuan. Euren gaitasunak ahalik eta gehien bultzatzea, haurren eta horren familiaren gizarte inklusioa sustatze, haurren eta horren familiari ingurura egokitzen laguntzea eta modu prebentiboan jokatzeko dira gure zerbitzuaren helburu nagusiak.

Azken batean, euren bizi-kalitatea hobetzea, dituzten beharrei lehenbailehen erantzunda. Horretarako, banakako edo taldekako saioak egiten dira, 45 minutukoak, familiak parte hartuta, eta laguntza eskaintzen zaio behar duen guztietan. Esku-hartzearen maiztasuna haurren garapenaren unean uneko beharren arabera da.



Arreta zuzena

Arreta zuzeneko zerbitzuak arreta goiztiarreko zerbitzuak eskaintzen ditu: Estimulazio orokorra, Fisioterapia, Logopedia eta Hidroterapia.

Tratamendua malgua da, haurren banakako ezaugarrien arabera. Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldeak erabakitzen du haur bakoitzak zer esku-hartze behar duen, eta horren bilakaeraren jarraipena egiteaz gainera, aldatu egiten du beharrezkoa izanez gero, haurren garapen ebolutiboaren arabera.

Hiru motatakoa izan daiteke: Jarraipena edo pautak (saio bat astean, hamabostean behin edo hilean behin), arreta jarraia (fisioterapiako, estimulazio



...

Arreta Goiztiarreko zerbitzuan, garapen arazoak dituzten edo halakoak eduki ditzaketen 0-6 urteko neska-mutilek artatzen ditugu. Estimulazio, Fisioterapia eta Logopedia zerbitzuak eskaintzen ditugu. Haur horien familiak ere artatzen ditugu eta lagundu ere egiten diegu,

ongietorria ematen diegu Arreta Goiztiarreko zerbitzuan, eta euren haurtxoei laguntzen erakusten diegu. Gurasoek parte har dezakete saioetan.

orokorreko, logopediako edo tratamendu konbinatuen saio bat edo bi astean) eta Talde Arreta, antzeko beharrak dituzten haurrak badaude eta euren tratamenduan gainerako haurrekiko harremanak lagun badezake. Taldeko 79 saio egin dira 2018an.

Familientzako ekintzak ere egin dira; masaje tailer bat, eta 10 familiak hartu dute parte; komunikazio tailer bat, 20 familiarekin, eta ikasturte amaierako jaialdia; 60 familiak hartu zuten parte bertan.

Estimulazio orokorra

2018. urtean, 242 haurrek egin dute estimulazioa, honela banatuta:

- 153 haurrek estimulazioa bakarrik egin dute
- 31 haurrek fisioterapia/estimulazioa egin dute
- 34 haurrek logopedia/estimulazioa egin dute
- 24 haurrek estimulazioa/logopedia/fisioterapia egin dute

Fisioterapia

2018. urtean, 132 haurrek egin dute fisioterapia, honela banatuta:

- 71 haurrek fisioterapia egin dute
- 31 haurrek fisioterapia/estimulazioa egin dute
- 6 haurrek fisioterapia/logopedia
- 24 haurrek fisioterapia/logopedia/estimulazioa

Nahasmendu neurologikoak dituzten haur batzuek arnasbideetan arazoak ere izaten dituzte, eta horrek zuzenean eragiten dio euren garapenari; beraz, arnasbideetako fisioterapiaren inguruko prestakuntza jaso dute fisiterapeutek azken urteotan, eta esku-hartzeak egiten hasi dira, zentzu horretan.

Egokitzapenak egitea ere badakar fisioterapiako esku-hartzeak, ezinbestekoak baitira eguneroko bizitzan postura onak edukitzeko eta ikastetxean zein etxean erabiltzeko.

Logopedia

2018an ere mantendu da ARGIA logopedia kabinetearekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena, Arreta Goiztiarrera joaten diren haurren behar askotarikoak direla-eta hizkuntzaren errehabilitazio espezifikoa behar duten haurrek artatzeko.

Euren ezaugarriak direla-eta, logopedia saioetara bakarrik joaten dira haur batzuk (109 haur); beste batzuek logopedia saioak eta arreta goiztiarrekoak txandakatzen dituzte zentroan (34k estimulazioa eta logopedia; 6k fisioterapia eta logopedia; 24k estimulazioa, logopedia eta fisioterapia); eta kasu batzuetan, Arreta Goiztiarreko Zentrora joaten da logopeda, balorazioak edo jarraipenak egiteko eta familiei pautak emateko. 173 haur artatu ditu logopedia zerbitzuak.





Familia laguntza

Artatu eta euren sentimenduak adierazteko, ezagutzak jasotzeko eta familiaren orekari lagunduko dioten pautak ikasteko esparru bat eskaintzea da helburua. Hiru laguntza mota eskaintzen dira: Harrera, Banakako laguntza eta gizarte arriskua duten familientzako laguntza. Hala, 147 familia artatu dira zentroan 2018an, eta banakako laguntzako 200 esku-hartze egin dira. Bestalde, gizarte arriskuan zeuden 10 familiari eman zaie aholkularitza eta laguntzako beste zerbitzu batzuetara bideratu dituzte.

Koordinazioa

Arreta zuzenarekin batera, haurren prestakuntzan inplikaturako hainbat zerbitzu koordinatzen ditu Arreta Goiztiarreko Zerbitzuak. Barne koordinazioko bilerak egiten dira astero, kasu bakoitza aztertzeko, zerbitzua antolatzeko, esku-hartzean partekatutako haurrak koordinatzeko, profesionalen arteko barne prestakuntzarako, kasu klinikoak aurkezteko eta logopedarekin koordinatzeko. Gainera, aldi behin, haurrak artatzen dituzten zerbitzu guztiak koordinatzen dira, Udaleko Hezkuntza Zerbitzua, gizarte zerbitzuak, Berritzegunea, Osakidetza eta abar.

Udal haur eskoletako eta haureskoletako aholkularitza

Ikasturte guztian zehar, koordinazioak egin dira haur eskoletan, eta jarduera pautak zehatzak eman zaizkie hezitzaileei, altzariak egokitu dira, beharrezkoa izan denean, eta haur bakoitzaren ezaugarrien eta horiekin egiten den lanaren inguruko informazioa trukatu da. Hezkuntza sare horretan 15 haur egin dira matrikulatuta.

Prestakuntza eta gizarte parte-hartzea

2018an, 3 prestakuntza hitzaldi eman zaizkie Presentacion de Maria, Francisco de Vitoria eta Sagrado Corazon ikastetxeetako haur hezkuntzako modulu etako ikasleei, zerbitzuaren funtzionamendua eta ezaugarriak erakusteko. Horrekin batera, Gimbernat-Cantabria Unibertsitate Eskolako fisioterapiako bi ikasleek gure zerbitzuan egin dituzte praktikak.

Arreta goiztiarra

Haurrak: **374**

Profesionalak: **21**

Familiak: **374**

Esku-hartzeak

Estimulazio orokorra: **242 haur**

Fisioterapia: **132 haur**

Logopedia: **173 haur**



Laguntzaileak:

Erakundeak:



Enpresak:

imesaza



telle vamos
www.telle vamos.eu

DIAGONAL

